

**FRANCISCO ONDARRA JAUNAREN  
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**



## FRANCISCO ONDARRAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

*Altsasuko Kaputxinoen Ikastetxean*

*Altsasu, 1981, Martxoak 22*

*Fr. Luis Villasante*

### **Euskaltzainburuaren hitzak:**

1. Euskaltzaindiko Jaunak
2. Aita Rufino Grandes, Fraide Kaputxinoen Probintziala
3. José Miguel Ondarra Bakaikuko Alkatejauna
4. Jaun-Andreak:

Gaur Euskaltzaindiak batzarre agiria eta ospetsua egiten du hemen, Altsasuko Aita Kaputxinoen Ikastetxe honetan.

Zergatik eta zertarako den batzarrea guztiok dakizute. Aita Frantzisko Ondarrak bere Euskaltzaindian sartzea ospatzen duelako.

Aita Frantzisko Ondarra Euskaltzaindian hutsarte bat betetzera dator: Aita Polikarpo Iraizozkoak utzitako hutsartea betetzera. Ongi etorri amoltsua eta zorionik beroena eman nahi dizkiot. Ikerlari trebea da Aita Ondarra. Beronen etorrerak esperantza handi bat pizten du Euskaltzaindian.

Bai Aita Iraizoz eta bai Aita Ondarra, bi-biak Kaputxinoak izanik, eta biak nafarrak, zilegi izan bekit hizño bana esatea Aita Kaputxinoek euskal arloan egin duten lana eskertzeko eta Nafarroak euskal harrobi den aldetik guretzat duen aparteko garrantziaz.

### **Kaputxinoak eta euskara**

Nola hitz labur batean adierazi, ordea, Aita Kaputxinoek euskararen alde burutu duten lana? Badakit izen asko eta asko utziko ditudala aipatu gabe. Barka. Baina dena esatetik deus ez esatera bada tarte bat, eta zerbait esan behar da inolaz ere. Eta zerbait hori esateko gaur da une egokia.

Guztiok dakite Kaputxino nafar bat dela gaur Euskaltzaindian dugun Euskaltzaindi zaharreko testigu bakarra: Aita Intza'r Damaso.

Gaur hemen egiten den bezalako festa edo ospaketa egin zen Elizondoko udaletxean 1921. urtean, Urtarrilaren 27an. Bai. Orduan egin zuen Aita Intzak bere Euskaltzaindian sartzea. Haren sarrera hitzaldirako gaia hauxe izan zen: “Nafarroako aditz laguntzailea”.

Ordutik hona ur handiak eta baita uholdeak ere pasatu dira zubi azpitik. Aita Intzaren bizitzeak gora-behera asko ezagutu ditu geroztik, baina bera beti egon da leial, orduan hartutako bokazioari beti erantzun dio zintzo. Haren lan guztiak ez noa aipatzera, baina bai batzuk: *Nafarroako euskal esaera zarrak*, “Larraun eta bere euskalkia”, “Burundako euskalkia”, *Kristau Ikasbidearen Azalpena*, etab. Gainera, zenbat lan ez ditu agertu *Euskeran*, *Riev-en*, *Zeruko Argian*, *Euskal Esnalean*, *Irugarrengo Prantziskotarra*-n, etab. Eskerrik asko, Aita Intza!

Euskal-Herria Iparraldean eta Hegoaldean bizi da, eta Kaputxinoek bietan izan dituzte euskaltzale sutsuak. Iparraldean gogoangarriak dira Aita Eusebio Larresorokoa, *San Frantses* aldizkariaren sortzailea, eta Aita Blas Mendiondokoa.

Hegoaldean, berriz, izen mordo luzea aipatu beharko genuke. Eskoriaztzar Aita Meltxior, Aita Elizondo, Arrigarai, Lezo, Ayengiz, Eusebio Etxalarakoa, Oyeregi, Larrañaga Aldabako Apezpikua, Loramendi, Aita Bera, Aita Donostia, Diego Altzakoa, Atañe Txantxangorri kantaria. *Zeruko Argia* aldizkaria, euskara hutsez hemen Hegoaldean ateratzen ziren aldizkarietan zaharrenetakoa, zaharrena ez bada, Aita Kaputxinoek sortua da, eta, esan nahiko balu, zerbait esateko luke hortaz Aita Intzak.

Gaur bizi direnen artean, berriz, hor dira Aita Jurgi Riezu, Aita Yurre, Ataun, Gaztelu, etab.

Gaur berriz ere Euskaltzaindian Kaputxino bat sartzen delarik, hortik aitzakia hartuz eskerrak eman nahi dizkiot Kaputxinoen Ordenari. Euskaltzaindikoa izendapenetan jartzen den esaldia gogoratuko nuke: Izan daitezela hitz hauek orain arte egindako lanan pozgarri, eta etorkizunean egingo direnen pizgarri...

### **Nafarroa, euskal harrobi**

Aipatu ditudan jaun horietarik asko eta asko nafarrak dira. *Nafarroa*, *euskal harrobi*. Oker ez banaiz, horrela du izena hortik dabilen liburu batek.

Eta bai, halaxe da. Gauza hauetan zerbait dakien bati entzun diogu behin baino gehiagotan Nafarroa dela euskal lurretan gutien aztertutik den eskualdea, anitz euskara moeta desberdin dituen, eta hizkera berezi horien ondasunak jasorik gabe eta ongi ikertu gabe dauzkana. Eta larriago dena: hizkera horiek ardura hil zorian daude. Hemen du Euskaltzaindiak egiteko bat guztiz premiatsua, geroko luza ezin daitekeena.

Egia da orain baino lehen ere egin dela zerbait. Bonaparte Printzeak eta haren lankideek Nafarroako euskararen ikerketari ekin zioten. Berdin Kanpionek ere. Ateraberi ditu Pello Salaburuk Bonparteren aginduz Etxeniketik Elizondoko euskarari burutu zituen lanak, baina beste asko eta asko argitara gabe daude oraindik Iruñeko Diputazioan. Azkue handiak ere lan galanta burutu zuen Erronkariko euskalkia, Aezkera etab. aztertzen. Gure egunotan Aita Kandido Izagirrek bilketak egin zituen Erronkarin, Ultzaman eta hemen Altsasun. Apezetxea jaunak ere Elkanoko Lizarragaren edizioa eskeini digu, hegoaldeko goi nafar euskalkia ezagutzeko guztiz interesgarria.

Gaur Euskaltzaindian hartzen dugun euskaltzain nafarra, Aita Ondarra, trebea eta aditua dugu Nafarroako euskarari dagozkion gaietan. Eta berdin Satrustegi, Izeta, Ana Mari Etxaide, Oskillaso etab. Atzerritar euskalariak ere Nafarroa ez daukate ahazturik: Geneviève N'Diaye, Bretschneider, Holmer eta beste, hemen ibiliak dira.

Baina oraindik asko dagoela egiteko, esan behar.

Langile berriak eta ongi prestatuak behar ditugu. Hain zuzen, langile berriak prestatu eta eskolatzeko egingo da heldu den hilean Dialektologi ikastaro bat, Euskaltzaindiak antolatua; gainera, gaiotan espezialista diren irakasleek emango dute ikastaroa.

Herriko hizkerak, tokian tokiko hizkerak, diren bezala, zehatz-mehatz jaso nahi dituztenen zerbitzutan antolatzen da ikastaro hau. Herriko hizkera ongi jasotzea ez da uste ohi den bezain gauza erraza. Prestaera bat, oinarriko eskola bat behar du horretan ibiliko denak, eta, hain zuzen, horretarako izango da ikastaroa. Gainera, saio honek beste xede bat ere badu azken helburutzat: Euskararen Atlasa martxan jartzeko bidea urratzea. Euskararen Atlas! Horra amets bat haundia eta zaharra, orain arte, baliabide eta laguntzen eskasiaz, Euskaltzaindiak sekula burutu ezin izan duena. Orain zorionean badirudi ordua heldu dela asmo hau ere mamitu eta egia bihurtzeko.

### **Guztiona eta tokian tokikoa**

Euskaltzaindiari maiz aurpegira bota izan zaio euskalkien eta herriko euskararen aurka dagoela. Euskara batuaren alde denez gero, herriko euskarari gibela eman diola, etab. Baina hori ez da hala. Euskaltzaindiak uste du bata ez duela bestea kentzen. Izan ere, guztion euskara eta tokian tokikoa ez dira elkarren etsai. Aitzitik, bata bestearen eske eta elkarri deika daudela esan genezake. Euskaltzaindiak badaki, euskara salbatuko baldin bada, batu antzeko euskara molde bat beharrezkoa dela, batez ere irakaskuntza eta idatzizko zeregin batzuetarako. Baina badaki, baita ere, ondasun baliozkorik anitz dela herriko euskaretan eta euskalki literarioetan, eta ondasun horiek, ahal dela, jaso, bildu eta baliatu behar direla. Bi ekintza hauek ez doaz bata bes-

tearen kontra, alde baizik; eta biak euskararen onerako izango dira, gauzak behar bezala eramaten badira, behintzat.

Esan dezadan, bukatzeko, gaur Euskaltzaindian sartzen den euskaltzain berriak bultzada handia egin diezaiokeela Nafarroako euskararen ikerketari. Hala izan dadila!

\* \* \*

En atención a los que ingnoran el euskara diremos dos palabras en castellano para explicar el sentido del acto que estamos celebrando.

El P. Francisco Ondarra, Capuchino, natural de Bacaicoa, pronuncia hoy su discurso de recepción en la Real Academia de la Lengua Vasca "Euskaltzaindia". Con este motivo la Academia celebra hoy sesión pública en este colegio de los PP. Capuchinos de Alsasua. Al recipiendario contestará el Sr. Académico D. José M.<sup>a</sup> Satrústegui, Secretario de la Academia y académico de número por Navarra.

El P. Ondarra sucede en la Academia al académico fallecido P. Policarpo Iraizoz. Por ser ambos Capuchinos y ambos navarros, en las palabras que hemos pronunciado en euskara hemos recordado brevemente la labor que los PP. Capuchinos han realizado en pro del euskara y de la cultura vasca y nos hemos referido también a la riqueza singular que atesora el euskara de Navarra, riqueza que no ha sido aún debidamente explorada, a falta de investigadores (aunque no han faltado precursores, como el Príncipe Bonaparte, Campión, Azkue, etc.)

Nos hemos referido también al interés que tiene la Academia por preparar personal adecuado y capacitado para estos trabajos de Dialectología.

Finalmente, hemos dicho una palabra en respuesta a una objeción o reproche que frecuentemente se le dirige a la Academia diciendo que ésta, preocupada por la formación de un euskara común para la enseñanza y para ciertos usos escritos, descuida la causa de las hablas populares, de los dialectos, etc. Hemos respondido a esta objeción diciendo que, al contrario, estas dos preocupaciones —la de la lengua común y la de los dialectos y hablas locales— no se excluyen mutuamente, sino que se atraen entre sí y se complementan, y que la Academia propicia la creación de un euskara común pero no por eso deja de prestar su atención al estudio y cultivo de los dialectos y hablas locales. Como dijo Jesús en cierta ocasión, "Había que hacer lo uno y no omitir lo otro".

## **POLIKARPO AITAK ZITUEN EUSKAL ESKU-IDATZI ZAHARREN AURKEZPENA**

*Altsasu, 1981-III-22*

*Francisco Ondarra*

Aita Villasante Euskaltzainburu jauna!

Euskaltzainkideok!

Jaun-andere guztiok!

Agur!

Egoaldeko Nafarroa-k, azkeneko denbora hauetan, lau euskaltzain oso izan ohi ditu. Orain urtebete hauek ziren bertako euskaltzainak: Intzar Damaso A., kaputxinoa, Anjel Irigarai Jauna, sendagilea, Jose Maria Satrustegi, Apaiz Jauna eta Iraizoz-ko Polikarpo A., kaputxinoa. Azkenekoa bitarte honetan hil eta hemen hitz egiten ari zaizuen hau autatu zuen Euskaltzaindiak, San Inazio egunean Bidasoa ondoko Bera-n, hutsune hori betetzeko.

Polikarpo Aitari buruz zerbait esan nahi nuke lehenbizi. Orain bildurik gauden etxe honetan asi zen kaputxino-gai bezala prestatzen; eta urteak joan ala, euskara aztutzen joan zitzaion, Hondarribi-ko ikastetxean berriz ikasteko. Hemeretzi urte zituela agertu ziren bere lehenbiziko bertsoak —1916. urtean— *Irugarrenko Prantziskotarra* izeneko aldizkarian, hortik aurrera bertso eta ipuin asko egingo zuela, eta libururen bat ere bai. Gainera, gauza asko utzi du argitaratu gabe.

Bainan ba-dago beste alderdi bat Polikarpo Aitarengan. Bere bitzta luzean eta berak ez zekiela ez noiz, ez nundik eta ez nork emanak, bildu zuen sermoi pilo haundi bat, hemezortzi eta hemeretzigarren mendetako predikuak, bai bizkaieraz, bai gipuzkoeraz eta bai Bidasoa aldeko ta Lapurdiko euskaraz ere. Berari esker, ailegatu zaizkigu baita ere Damaso Aitak Goñibar-en aurkitu zituen predikuak eta Elkano-n aurkitutako Joakin Lizarraga-ren bi liburu.

*Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpena* izango da gaurko hitzaldi honen egitekoa.

Bizkaieraz 76 prediku edo sermoi eta *Peru Abarka*-ren zati bat utzi dizkigu; gipuzkoeraz, 19 sermoi eta *Zegama-ko Dotrina* bat; Bidasoa aldeko euskaraz eta lapurdieraz, 49 prediku edo dotrina; Goñibar-en aurkitutako sermoi eta beste 55 dira. Aipatuko ditugu, baita ere, Lizarraga-ren bi liburuak. Eras-kin bezala, eta lanaren osagarri, emango dugu Jorge Aitak bildutako agirien berri ere, eta Lekaroz-ko Liburutegian dauden esku-izkribuena.

## A. Bizkaierazko agiriak

### a) Aita Añibarro-renak.

Hogei-ta-lau (24) dotrina dira eta “Egempluac” izeneko orrialde batzuk, dotrinen artean ipiniak. Erabili duten paperaren luzera-zabalera hau da: 220/224 luze eta 160/165 zabal. Lehenbiziko hogei dotrinak XX. mendeko esku batek aldatuak dira, eta *s* ta *z* nahasten ditu; azkenekoak hemeretzigarren mendeko asieran, Añibarro oraindik bizi zela, hala uste dugu, izan ziren idatziak eta *s* ta *z* jatorki daude. Bestalde, Aita Añibarro dela beren egilea hemezortzigarren dotrinan ageri da, laugarren orrialdean; eta Añibarro Aitak bere eskuz idatziak Arantzatzu-n gordetzen dira.

Hona hemen dotrinen izenburuak:

1. “Dotrinea / Pecatuen circunstanciac, edo lagungarriac, eta beste jaquin bearrac”.
2. “Dotrinea / Jaungoicoaren legueco lenengo Mandamentua / Jaung.<sup>a</sup> maite izatea gausa gustien ganean”.
3. “Dotrinea / Fede santuaren ganean”.
4. “Dotrinea / Esperanzaren ganean”.
5. “Dotrinea / Caridadearen ganean”.
6. “Dotrinea / Juramentuaren ganean”.
7. “Dotrinea / Beste bat: Juramentuaren jarraia”.
8. “Dotrinea / Birao, ta madaricaciñoaren ganian”.
9. “Dotrinea / Beste bat: Biraoaren ganean”.
10. “Dotrinea / Beste bat: Biraoaren ganean”.
11. “Dotrinea / Boto edo Promesaren ganean”.
12. “Dotrinea / Beste bat boto ta promesaren ganean”.
13. “Dotrinea / Jaung.<sup>n</sup> legueco irugarren mandamentua. / Cer dan, ta certan emon bear direan Domeca ta Jaiegunac”.
14. “Dotrinea / Jai eguneco gaistaqueriac: eta cer eguin bear dan jaiac ondo gordeteco”.
15. “Dotrinea / Jai eguneco bear eguitearen ganean”.
16. “Dotrinea / Jai eguneco meza entzutea”.
17. “Dotrinea / Ce gauza miragarria dan Meza Santea”.
18. “Dotrinea / Mezan esan ta eguiten diran gauceen iracasteac, ta adierantzac”.



19. "Dotrinea / Mezentzuteagaiti Jaung.<sup>c</sup> eguin dituan mirariac".
20. "Seme alavac euren gurasuai zor deuten maitetasuna."
- 20 bis. "Laugarren mandamentua. / 46 Dotrinea. / Seme alabac euren gurasoai zor deuten maitetasuna". (Lehengoa bera da).
21. "47. DOTRINEA. / Semeac bere gurasoai zor deuten socorrua, ta lotsa".
22. "48. DOTRINEA. / Semeac euren gurasoai zor deuten obediencia."
23. "Egempluac" (Dotrinetan erabiltzeko dira).
24. "49. DOTRINEA. / Gurasoac semeai emon bear deutseen gorputzaciara".
25. "50. DOTRINEA. / Gurasoac euren semeai emon bear deutseen aciera espirituala".

b) **Fr. Miguel de San Francisco** eta beste zenbaiten sermoiak 27 dira. Predikarari honek 19 platika utzi dizkigu, asi 1778. urtetik eta 1808. urterainoko tartean, Markina, Lekeitio, Gernika eta Mundaka-n predikatuak. Egia esan, ehun platika eta gehiago idatzi zuen. Paperaren luzera-zabalera 220 eta 150 mmkoa da gutxi gora bera.

Fr. Migel-ek euskara ona erabiltzen du. *Hiato* delakoa austeko joera agerian dago bere lanetan, eta horrela aurkitzen dugu *Magestadia, galdubac, andiyagaz* (i grekoarekin). Genitibo edutezkoa askotan laburtu egiten du: *Jangoicoen* eta *Jangoicoaren* ikus daitezkeela.

*Frater Franciscus de Hormaechea*, latinez izenpetzen du bere sermoi bakarra, dugu beste izen berri bat bizkaierazko idazleen artean. Euskara eta gaia interesgarriak; eta "hiato"-a austen honek ere, baita *s* eta *z* nahasten. Hemeretzigarren mendekoa da.

Sermoigileren izenik gabeko beste predikuetatik bat aipatuko dugu, 21a. Bertan, *u* ondoko *a* aldatu eta *e* bilakatzen da: *burube, desiertuben* etab.; hiatoa austen da eta *s/z* gaizki erabiltzen. Erantsi behar dugu, hiatoa denek austen dutela.

Atal honetan aipatuko dugu Moguel-ek idatzitako *Peru Abarka*-ren zati bat, eskuz idatzia. Cazalis, Markina-koak, egindako aldapena da, 2. elkarriketaren puska bateraino ailegatzen dela. Joan den mendekoa daiteke izan. Durango-ko argitaldian, 1881. urtean egina, 83. orrialderaino hartzen du.

Fr. Miguel eta besteen hitzaldien izenak:

1. "Miserere del año de 1778". Fr. Miguel de San Francisco: Markina, Lekeitio eta Mundaka-n, 1778-1807.
2. "Sermon de san Ramon. / año de 1781". Fr. Migel: Gernika, 1781.
3. "Platica del 6.<sup>to</sup> Mandam.<sup>to</sup> / año de 1786". Fr. Migel: Markina.

4/5. "Platicas 7.<sup>a</sup> y 8.<sup>a</sup> de los Articulos, Padeció, y resucitó. / año de 1787". Fr. Migel: Markina, 1787-1801.

6/7/8. "Platicas: Que es Iglesia: La Comun,<sup>n</sup> de los SS.<sup>tos</sup>, y Perdon de los Pec.<sup>s</sup> / año de 1787". Fr. Migel: Markina, 1787-1801.

9/10. "Platicas 14. y 15. Resurrec.<sup>n</sup> Vida Perdur.<sup>e</sup> Y Orac.<sup>n</sup> en comun. / año de 1787". Fr. Migel: Markina, 1787-1801.

11/12. "Platicas, Salve, y Madam.<sup>tos</sup> en General Para Marquina / año de 1788". Fr. Migel: Markina, 1788-1793.

13/14. "Platicas 42. y 43. de las obligac.<sup>s</sup> de criados; y casados. / año de 1789". Fr. Migel: Markina, 1789-1808 (eta Mujika, 1854).

15/16. "Platicas 50. y 51. del 6.<sup>to</sup> mandam.<sup>to</sup> Palabras, y Vistas &. / año de 1789." Fr. Migel: (?), 1789-1795.

17. "Platicas 60. y 61. Compendio de los 10. Mandamientos: y / el Primero de los cinco, del sacrificio de la Missa. / año de 1789". Lehenbiziko platicaren zati bat besterik ez dago. Fr. Migel.

18/19. "Platicas 110. y 111. de la 2.<sup>da</sup> y 3.<sup>ra</sup> Bienaventuranzas / año de 1782". Fr. Migel: Nun (?), 1792-1799.

20. "Pasio Dni nri Jesu Christi secundum quator Evangelia". Bekatuaz ari da. Aulestia, 1833.

21. "Para el primer Domingo de Quaresma 1838".

22. "Santa Agueda". 1852 inguruan, Mañaria-n (?).

23. "Dominica 7. post Pent.<sup>m</sup> / De los padres". 1852 (?).

24. "Los Pecados que acarrea la Ociosidad". 1854 (?).

25. "Sermon del 1.<sup>o</sup> Domingo de Cuaresma". XIX. mendekoa.

26. "Serm.<sup>n</sup> de la Cruz de Mayo". Frater Franciscus de Hormaechea. XIX. mendekoa.

27. "Sermon de S.<sup>ta</sup> Agueda en / Bascuence". XIX. mendekoa.

28. (Peru Abarka-ren aldapena). Estalkian honela dio: "Esta copia es de Cazalis / el de Marquina".

c) Hirugarren pilo batean 25 sermoi daude, nork idatziak izan ziren ez dakigula. Hemezortzigarren mendeko bukaera edo hemeretzigarrengoaren asierakoak izan daitezke. Horietako bat, laugarrena, Dima-n izan zen predikatua eta predikalaria karmeldarra da, honela bait dio: "Ea bada *Dimarrac* seuvecana viortuten dot, eta seuvecas dot neure converzacino gustija" —4. sermoi, 8. orrialde, 2. parrafu—, eta "*Neure Aita* S.<sup>n</sup> Eliasi" —4, 1, 1—. Beste bat dominikua daiteke izan, hau bait dio: "*Gure Aita* Santo Domingoc" —19, 12, 1—.

Euskara ona dute 3, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12 eta 25. sermoiak. Bigarren predikua interesgarria da bai hizkuntzaren eta bai oituren aldetik. Gehienetan *s* eta *z* nahasten dira. Lehenengo predikuan ez dago hiatoa austeko joerarik, beste guztietan bai ordea. Lehenengo horretan *i* ta *u*-ren ondoko *a* bokalea *e* bilakatzen da, eta genitibo edutezkoa laburtzen; bestalde, *j*-ren ordeztu *y* erabiltzen da: *yoan*, *yarraituco*, *Yente*, *yaquin*, etab.

Nork idatziak izan ziren ezin dugu esan. Bakarrik, bigarren eta hirugarrena esku batek eginak direla; beste guztiak, prediku ainbat eskuk idatziak.

Paperaren luzera-zabalera: 220 eta 150 gutxi gora bera.

Beren izenak hauek dira:

1. "Santiago Apostol".
2. "Bostgarren mandamentuan ganeco dotrinia".
3. "Pecatu venialen ganeco dotrinia, Purgatorioco / Animen Sermoia eguiten daneraco".
4. "S.<sup>us</sup> Paulus".
5. "S. Martin Obispo".
6. "Sermon / Para el dia de la / Resurreccion".
7. "Sermon en bascuenze sobre el corto numero de los que se salvan".
8. "Platica para Dom. 5., de Cuaresma". Badaiteke 1847goa izatea.
9. (Ongi ala gaizki komekatzen denaz).
10. "Haec est victoria quae vincit mundum fides nostra". Fedez.
11. (Jesukristo Eukaristia sortzen).
12. "Sermon de la Dom.<sup>ca</sup> 3 de Quaresma / en lengua Bascongada / vesperè / Sobre no dilatar la penitencia".
13. "Santiago Apostol".
14. "Sermon en Bascuence para la segunda Dominica de / adviento y para la quinta de quaresma / sobre embidia".
15. "Dom.<sup>ca</sup> 2.<sup>a</sup> de Adviento, sobre el = / Escandalo".
16. "Domingo seg.<sup>do</sup> de Adviento. / De la envidia y sus frutos".
17. "Platica de la observ.<sup>a</sup> del Domingo".
18. "Para la Domi. 4.<sup>a</sup>, de Sept.<sup>bre</sup>, sobre los muchos / q.<sup>e</sup> se condenan por la lujuria; sobre las pa- / labras obcenaz".
19. "Rosario".
20. "Sta. Agueda". Arkatzez dago idatizirik izen hau.

21. "Sermon sobre la Comunion".
22. (Heriotzeaz).
23. (Pekatu mortala).
24. (Purgatorioko arimak).
25. "Platica p.<sup>a</sup> la Dom.<sup>ca</sup> / 21. post Pentec.<sup>em</sup> / Sobre / la Obligación de / perdonar / a / los enemigos".

## B. Gipuzkoerazko agiriak

Hemeretzi sermoi, bainan azkeneko biak ez daude osoak, eta Kristau Ikasbide edo Doctrina bat ditugu sail honetan.

Sermoietan zaharrena 1806. urtekoa da, eta beste guztiak ere mende horretakoak dira, uste dugunez. Paperaren neurria: 220 eta 150 mm. gutxi gora bera. Sermoigileak hauek dira:

*Mekoleta*-k bi (?) prediku ditu; *Fr. Francisco de Orueta*-k bat; *Urdangarin*-ek beste bat, *Segura*-n predikatua; *Fr. Manuel Ignacio de Echeandia*-k (?) bost sermoi, *Aratz*-en (?); eta *Fr. Julianus a S. Josepho*-k prediku bakar bat. Egile ez-ezagunen sermoiak ere badira.

Honako herri hauetan izan ziren predikatuak: *Errenteria*, *Segura*, *Aratz* (?) —Itxaso eta Astigarreta aldeko parrokia— eta *Alegria*-n (?), etab.

Euskara ona dute *Mekoleta* eta *San Jose*-k, baita beste zenbait predikuk ere. Bi sermoigile horiek eta beste sermoiren batek ere *s* eta *z* gaizki erabiltzen dituzte. *San Jose*-k *hiatoa* ausi egiten du, bizkaieraz bezala *zorijona* —jotaz idatzia— egiten duela. Gehienek bizkaierazko kutsua dute, eta aipatu ditugun predikalarietan *Urdangarin*-ek ez beste guztiek.

*Zegama*-ko Kristau-Ikasbidea —*Doctrina Christiana*— oso interesgarria dela uste dugu. 1741. urtean egina da, bertan esaten den bezala, "Cegamaco Escolan (Gaztelinaz ostein) eracusten dan moduan milla, zazpireun, eta berroguey, eta batgarren vrtean". Bere neurria hau da: 200 eta 150 mm. gutxi gora bera; 136 orrialde ditu, baten bat falta dela bukaeran. Nork egina izan zen ez dakigu, bainan izan daiteke *Martin de Vrteaga* izeneko bat bere itzultzailea —Ik. 25. orrialdean izenpea—.

Bizkaierazko euskalkiaren kutsu aundia ageri da doctrina honetan morfologian: *Aitearen* —1. orrialdea—, *esperancea*; sintasian: "Sinistu Aitea dana" —5. or.—; hiztegian: *domeca*; eta aditz-jokuetan: *ceban*.

Hona hemen agiri guzti hauen izenak:

1. "Dominica quarta / de Adviento. 1806 / *Mekoleta*".
2. "Domingo tercero de Adviento".

3. "Pl.<sup>a</sup> (Platica) Mentira 21". "Fr. Fran.<sup>co</sup> de Orueta 1812".
4. "Asunc.<sup>n</sup> Rent.<sup>a</sup> 1819". Rentería, 1819.
5. "Descendim.<sup>to</sup> del Señor = predique en Segura / año de 1826. / Vrdangarin (eta errubrika)".
6. "Platica ——— 45 / Dotrina ur bedeincatu, candela ta ezquilla edo campaien gañean". Fray Manuel Ignacio de Echeandia, Arazko "Vic.<sup>o</sup> Int.<sup>no</sup>" 1837. urteko apirilaren hogeita-hirugarrenean. Ez nago seguru bera ote den egilea.
7. "Platicas o Sermon / Propositos". Lehengoa bera.
8. "Platica ——— 2.<sup>a</sup> / Domingo 2 de Aviento (sic) sobre el Escandalo No". Lenengoa bera.
9. "Platica ——— 3.<sup>a</sup> / Dom.<sup>ca</sup> 3.<sup>a</sup> del Adviento No". Lehengoa bera.
10. "Platica ——— 40 / Pensam.<sup>s</sup> y Palab.<sup>s</sup> feas O". Lehengoa bera.
11. ("Aingueruen gañean").
12. "Sermon de la eternidad". Fr. Julianus á S. Josepho.
13. "Sermon / del Corazon de Jesus". Arkatzez dago idatzirik titulua; barruan gauzarik frango bizkaierara aldaturik.
14. "Domingo de Resurreccion".
15. (Eukaristiaz). Ikusi urrengoak ere; denak batek eginak dira.
16. "Platica sobre la comunion / espiritual. / (errubrika)". Alegrian predikatua izan daiteke (Ik. 4. orrialdea). Ik. aurrekoa.
17. (Eukaristiaz). Ik. aurrekoak.
18. (Jaunartzeaz). Ik. aurrekoak. Ez dago osorik.
19. (Aitorpen edo "confesioa"-z). Ik. aurrekoak. Orrialde bat.

### C. Bidasoa aldeko eta lapurdierazko agiriak

Agiri hauek 49 sermoi dira, horietatik 31 Bidasoa aldeko euskaraz delarik, eta beste 18 lapurdieraz. Paperaren luzera-zabalera 150 × 110 da guztietan. "Filigrana" delakoa mota askotakoa da: BAY, Ragueta, Bagneres Gior Magnani, TOLOSA DE G<sup>A</sup>, P B (eta bi iduri), Al Masso Gior Magnani, Uranga (eta honen azpitik T G).

Noiz izan ziren predikatuak? Zaharrena 1831. urtekoa da, Irun-en predikatua; eta berriena, 1861. urtekoa edo.

Nun izan ziren predikatuak? Ageri diren herrien izenak hauek dira: Arizkun, Arrangoitze, Bera, Beronitz (?), Hendaia, Henuritze (?), Etxalar, Irun, Oiartzun eta Uztaritze-n eta ez dakigu nungo monjetan.

Nork idatziak izan ziren ezin dugu esan, baina uste dugu kaputxinoak izan daitezkeela. Horietako batean, Irun-en predikatzeo egindakoa, hau irakurtzen dugu (sartu han) sermoiaren ondotik dakarren NOTA luze batean: "Otras barias cosas se hallan en el archivo de nro convento de Fuenterrabia: Como milagros, ataq." —2. sermoia, 19. orrialdea—. Guztira, hamar bat euskal idazle ez-ezagun ditugu, pentsatzen dugu; eta esan daiteke mugaz alde honetakoak direla, euskaraz ez dauden gauzak gaztelaniaz bait daude. Gainera, honako hauek arkitzen ditugu: "Fue escrito en Francia y predicado á los Franceses en su Dialecta (sic) —4. sermoia—, eta "Estas doctrinas estan escritas en la Dialecta labortana" —44. sermoia—.

Idazkeraren aldetik, prediku askotan *-tt-* (*t* bikoitza) erabiltzen da frango, eta horietan beretan *-rr-* bakuna *-rr-* bikoitzaren orde. Esakeraren aldetik, guztietan "hiato"-a austeko joera argi ageri da; baina azkeneko bietan oso gutxi.

Morfologiaren arloan hau esan dezakegu: genitibo edutezkoa pluralean (*h*)*oquin* 'hauen' izaten da askotan; eta irakurtzen dugu baita ere *Gizonequin-zat* 'gizonentzat' —1. sermoia, 4, 3—, *maldadiaquiña* 'maldadeena' —8. sermoia, 3, 3—, *Elicequin* 'elizeen' —12. sermoia, 13, 2—. Sintasiari gagozkiola, berriz, prediku guztietan *-a* mugatzailea gorde egiten da aipatuko dugun sintagma hau bezalakoetan: "templu sagraduba onetan" —2. sermoia, 1, 1—. Fenomenu hau, salbuespen bakanen bat ez beste guztietan, ondotik erakusleren bat datorrenean gertatzen da, salbuespen bezala honoko hau erakusten dugula: "arpeguiya ariñarequin" —3. predikua, 10, 1, 12—.

Esan dugun bezala, Bidasoa aldeko eta Lapurdiko euskaraz daude dotriak eta beste. Gerta daiteke sermoi bat Uztaritze-n eta Etxalar edo Oiartzunen erakutsia izatea. Bestalde, monjei predikatuetatik sei lapurdieraz daude eta bat Bidasoa aldeko euskaraz: 1859, 1860 eta 1861. urtetan emanak.

Nungo monjak ziren eta nun bizi ziren? Uste dugu Arizkongoak izan daitezkeela, "clarisas" direlakoak. Itzaldi horietako bat, 30a, "Santa Clara de Asis. Virgen" izenekoa da. Esan behar dugu ere, prediku hauek ez zirela egin monjei predikatzeo, baizik herriren batean, eta gero monjendako aprobehtatuak.

Buka dezagun atal hau Nafarroa-rekin zer ikusirik daukan berri batekin. Prediku baten izena hau da: "San Francisco Xavier", Oiartzun-en, 1834. urtean eta bertan ikusten dugu predikalariak badakiela Nafarroa Euskal-Herria dela, honela bait dio: "Jayo cela (San Frantzisko Xabier) gure Españian, vscal Errian, Nafarruan" —15. sermoia, 1, 15-16—.

Sermoi, prediku eta dotrinen izenak hauek dira:

a) **Bidasoa aldeko euskaraz.**

1. "Natividad de N. Señora". Irun, 1831.
2. "El Nacimiento de Maria". Irun, 1832 (?).
3. "Se muestra / La constancia de S. Vicente / Diacono". Hendaia, 1832.
4. "Mandato". 3. sermoiarena bezalakoa da bere idazkera.
5. "Pecado". 3. sermoiarena bezalakoa.
6. "Pecado mortal Dotrina 2.<sup>a</sup>". Lehengokoak bezala.
7. "Alma". Etxalar (?), 1833. Lehengokoak bezala.
8. "Despedida". Berdin.
9. "El que calla pecado por vergüenza". Etxalar, 1836; Oiartzun, 1837 (?); Beronitz (?), 1848, eta Uztaritze, 1848. Idazkera bera 14. sermoia arte.
10. "De enemigos". Etxalar (?), 1841 (?) eta Oiartzun (?), 1844.
11. "La pasion del Señor segun San Juan Evang.<sup>a</sup>". Etxalar (?).
12. "S. Mart.<sup>n</sup> Obispo / Dios".
13. "Basta uno para que Dios castigue a muchos".
14. "Desonestidad".
15. "San Francisco Xavier". Oiartzun, 1834. Idazkera bera 28a arte.
16. "La purisima Concepcion". Oiartzun, 1834.
17. "La Circuncision del Señor". Etxalar (?), 1836.
18. "Los dolos de Maria al pie de la Cruz". Etxalar (?), 1836 eta Uztaritze (?), 1846.
19. "Eternidad". Etxalar, 1836; Oiartzun (?), 1839 eta Uztaritze (?), 1842.
20. "Murmuracion". Etxalar, 1837.
21. "Comunion frecuente". Etxalar, 1837 eta Uztaritze (?), 1845.
22. "San Josef".
23. "Santificacion de las fiestas / (Dotrina 1.<sup>a</sup>)". Oiartzun (?), Etxalar (?). *Oharpena:* Hau eta urrengo lau dotrinak "cuadernillo" batean daude.
24. "Santificacion de las fiestas / (Dotrina 2.<sup>a</sup>)".
25. "Confesion anual / (Dotrina 3.<sup>a</sup>)".
26. "Ayuno Ecclesiastico / (Dotrina 4.<sup>a</sup>)".

27. "Diezmos / (Dotrina 5.<sup>a</sup>)".
28. "Concepcion". 1854a baino lehenagokoa.
29. "Animas". "Vera 1836: 18 de Agosto. / Arizcun 1857. 25 de Mayo". Bere idazkera eta urrengo biena berdin (?) xamarra.
30. "Santa Clara de Asis. Virgen". "Monjas 12 de Agosto 1860" (?).
31. "S. Jose".

**b) Lapurdieraz.**

- 32 (1). "Materiales para el Sermon / de S. Vicente Martir sacados de / Hudri, y del P. Roche". Uztaritze, ca. 1847. Idazkera bat (?) urrengo biekien.
- 33 (2). "S. Vicente Martir". Uztaritze, 1847, eta "Predicado en Ustaritz (Francia) en / la Dialecta de allí el año 1849".
- 34 (3). "El numero delos (sic) que se salvan".
- 35 (4). "S. Juan Bautista". Uztaritze (?), 1848. "Fue escrito en Francia y / predicado á los Franceses en / su Dialecta". Idazkera bat 41a arte.
- 36 (5). "4.<sup>en</sup> Mandamendua = Educacionea. / (Dotrina 1.<sup>a</sup>)".
- 37 (6). "Amoriua. / (Dotrina 2.<sup>a</sup>)".
- 38 (7). "Yatera emaita. / (Dotrina 3.<sup>a</sup>)".
- 39 (8). "Instruccionia / (Dotrina 4.<sup>a</sup>)".
- 40 (9). "Sobre la educación de los hijos".
- 41 (10). "El Hijo Prodigio".
- 42 (11). "Muerte del Pecador". Arrangoitz (?), 1850 eta Uztaritze, 1850. Idazkera bat 47a. arte.
- 43 (12). "Pasion de Jesucristo". Etxalar (?), 1847 (?); Monjak, 1860.
- 44 (13). "1.<sup>a</sup> Instruccion sobre la Eucharistia". Monjak, 1861. Estalkiaren barruko orrialdean hau dio: "Estas Dotrinas estan escritas en la / Dialecta labortana". Dotrina hau eta urrengo hiruak esku batek idatziak dira eta laurak liburuxka bezalako batean daude josirik.
- 45 (14). "2.<sup>a</sup> Instruccion sobre la Eucharistia. / Amor de Jesucristo, é ingratitude delos (sic) hombres".
- 46 (15). "3.<sup>ra</sup> Instruccion sobre (sic) la Eucharistia. / Comunion frente (sic)".
- 47 (16). "4.<sup>a</sup> Instruccion sobre la Eucharistia. / Las disposiciones necesarias para comulgar bien".



48 (17). “Ceniza”. *Henuritz* (?), 1842; *Uztaritze*, 1845 eta 1851; *Arrangoitze*, 1847; eta *Monjak*, 1859. Esku batenak hau eta urrengoa.

49 (18). “Etsaiyac”.

#### D. Goñibarko esku-idatziak

Goñibarko Munarriz-en arkitu ziren euskal agiriak 55 dira, bat ez beste guztiak sermoi edo predikuak. Horien berri beste lan batean eman genuen eta orain imprimategian dagon *Euskeran*-n azalduko da.

Orain hirurogei bat urte direla izan ziren arkituak eta Damaso Aitaren eskuetara ailegatuak. Gero Polikarpo Ak. gorde izan ditu.

Idatzirik dauden paperaren neurria hau da: 150 / 155 × ca. 210 mm.

Noiz izan ziren eginak? Oker ez bagaude, XVIII. mendean izan ziren eginak gehienak, zaharrena 1743. urtekoa delarik. Dudarik gabe, 23 izkribu mende hortakoak dira, eta zazpi XIX. mendekoak. Beste guztiak, 25 prediku etab., ezin esan noizkoak diren: hemezortzigarren ala hemeretzigarren mendekoak.

Nork izan ziren eginak ezin dugu esan, baina hamabi bat sermoigile badirela badakigu. Hamabi bat esku ezberdin badira, eta esku bakoitzak euskara diferentea du; beraz, hamabi bat euskal idazle baditugu. Horietako batek hamasei (16) sermoi utzi ditu, eta beste batek bat bakarrik. Berrienak, XIX. mendean idatziak, karmeldar batenak dira; horietako batean —nere sailetan 53. sermoian— hau irakurtzen bait dugu: “Ayta lumbier nere erreligionetaco Ayta D.<sup>o</sup> (= Docto) batec”. Aita Lumbier hamazazpigarren mendeko teologu eta predikalari bat izan zen, karmeldar oinetakoduna —Ik. gure beste lan hori—. Besteren bat frantziskotarra edo beharbada kaputxinoa izan daiteke, honela bait dio: “gure Aite S. franciscoc” —47. sermoia—. Beste erlijiosoren bat ere badaiteke izatea; baina uste dugu gehien-gehienak herrietako apaizek eginak izan daitezkeela.

Nun izan ziren predikatuak ere ezin esan. Behin bakarrik ematen zaigu horren berri, eta horregatik badakigu horietako bat Iruñerri-ko Izu herrian, Oltza-ko zendean, 1757. urtean —13. sermoia—, izan zela predikatu. Pentsa daiteke Goñibar, Oltza-ko Zendea eta Nafarroa-ko beste zenbait tokitan ere aitu zirela hitzaldi horiek.

Nungo eta nolako euskara duten esango dugu orain. Bonaparte Printzearen hitz eta aditz-jokoak etab. ikusirik, baita ere Elkano-ko Lizarraga-ren liburuekin gombaraturik, esan daiteke idatzi gehienak Goñibar eta Oltza aldeko euskaraz daudela; eta badaiteke zenbait Ultzama edo Ezkabarte aldekoaz egotea. Lau ez beste guztiak Nafarroa-ko euskaraz daude: goi nafar egoaldekoaz eta goi nafar iparraldekoaz. Hau obeto konprenitzeko, gogoan izan behar dugu goi nafar egoaldeko euskalkia Iruñe-ko euskara zela, hortik alde

guztietara zabaltzen zelarik: Auritz, Arakil, Gares eta Estellerriko Goñibar eta Gesalatz-en euskalki hau erabiltzen zuten. Beraz, asi Pirineotatik eta Erribera-raino ailegatzeko zela esan daiteke.

Euskara ona eta euskara gaizkara, biak ditugu izkribu hauetan.

Atal hau bukatzeko eta Nafarroa-n garai haietan zein sakonki sarturik zegoen gure euskara ikusteko, bi lekuko ekarriko ditugu, gure predikuetatik hartuak.

Lehenbiziko lekukoa Goñibarko euskaraz egon daitekeen sermoi batetik hartuz dugu eta honela dio: “Bada Jaun Divino arec errespondatuco dizu, cer, bentures nere Prediquedoreac itz eguindute zuretaco Erdaras, franceses, latiñes, edo zuc ecin comprenditu dezaquezun moduen?” —29. sermoia, 2v., 4, 4s—. Eta bigarren lekukoa Oltza aldeko eta Baztango euskara nahasten dituen prediku batean dugu: “Cergatic vsten duzue emen eztirela aurrac minzazen frances? Cergatic vere Aytac ezpaitaquite frances, eta arla ezpaitabete iracusten; eta cergatic mintzatzen dire guciac vscaras; cergatic vere Gura-soec eztaquite vertze lenguaжерic; eta arla icasten dute lengaje au vere gura-soenganic” —54. sermoia, 12, 3, 2-5—.

Goñibarko esku-idatziak hauek dira:

1. “Domingo primero de quaresma.” 1743 eta (berriz predikatua) 1826. Lehenbiziko sei sermoi hauek sail bat osatzen dute: *Igo saila*.
2. “Sermon del Quarto Dom.<sup>o</sup> de Adbiento”. 1747.
3. “Sermon del Seg.<sup>do</sup> Domingo de Quaresma”. 1749.
4. “Sermon del Segundo Dom.<sup>o</sup> de Quares.<sup>a</sup>”. 1753 eta 1826.
5. “Dom.<sup>a</sup> 3 quadrag.<sup>e</sup>”. 1827. urtean berriz predikatua.
6. “Dom.<sup>a</sup> 4.<sup>a</sup> Quar.<sup>e</sup>”. 1826. urtean berriz predikatua.
7. “Dom.<sup>ca</sup> 4.<sup>a</sup> Quad.<sup>mae</sup>”. XVIII edo XIX. mendekoa. Urrengo hiru predikuekin 2. *saila* osatzen.
8. “Garicimaco irugarren Igandeco Lecioa”. 1830ean berriz predikatua.
9. “Garicimaren Laugarren Igandeco predicu, edo Leccioa”.
10. “Garicimaren borzgarren Igandeco Leccioa”.
11. “Domingo quarto de Adviento, año de 1755”. Hemen asten da 3. *saila*, eta 26. arte ailegatzeko da.
12. “Adviento. / Dom.<sup>a</sup> 3.<sup>a</sup> adventus. / año de 1757”. 1822 ta 1829 berriz.
13. “Domi.<sup>a</sup> 2. Quadre. / Delos pocos que se salvan. / Izu”. 1757.

14. "Domingo Primero de Quaresma". 1757, 1758, 1759, 1760.
15. "Sermon de Penitencia". 1759.
16. "Doctrina del pecado mortal". 1766 eta 1769.
17. "Del Juicio Vniversal". 1768 eta 1770.
18. "Doctrina para el Domingo 2.º de Adviento". 1769, 1770, 1771, 1772 eta 1773.
19. "Dela reverencia, que deben los hijos a sus Padres". 1769 ta 1771.
20. "Domingo 2.º despues de Resurreccion". 1770.
21. "Dela Domi.<sup>a</sup> delas Pascua del Espiritu Santo". 1771, 1771 eta 1772.
22. "Domingo de Quinquagesima". 1770 eta 1772.
23. "Para el Domingo 2.º despues dela Epifania del dulcissimo nombre de Jesus". 1770, 1772 eta 1817.
24. "Para el dia de Reyes". 1770, eta 1823 ta 1829.
25. "Dela muerte". 1771, 1772 eta 1773.
26. "Domingo 5.º dela resurreccion". 1772 eta 1830.
27. "Platica dela Pureza". XVIII edo XIXgoa; 1817 eta 1829. urtetan berriz predikatua. Urrengo lauekin 4. *saila* egiten du.
28. "Dela Muerte".
29. "Sermon de el Juicio Particular".
30. "Porro unum est necessarium". ("gure animen salvacioa... izenenda nere sermonaren asunto gucie").
31. (Bule sanduez). 1827 eta 1832. urtetan berriz predikatua.
32. "Abijt Jesus trans mare galilaeae qd e Tiberiadis. Joan. 6.". Berriz predikatua 1822. urtean. Urrengo hiruekin 5. *saila* osatzen du eta XVIII ta XIX. mendekoa izan daiteke.
33. "Quis ex vobis arguet me de peccato. Joann. c. 8.".
34. "Assumsit Jesus Petrum, et Jacobum et Joannem et transfitus e ante eos Math. c 17.".
35. "Haec omnia tibi dabo si cadens adoraveris me. Math. 4".
36. "Erunt signa in sole, et luna et stellis. Lucae cap 21". XVIII / XIX.-mendekoa. Urrengoarekin 6. *saila* egiten. Berriz predikatua 1825 eta 1831. urtetan.

37. "Erunt signa in sole, et luna, eta in terris presura gentium. Lucae cap 21."

38. "Quis ex vobis arguet me de pato? si verit(atem) dico vobis qare n creditis mihi (?) Joannis cap. 8.". XVIII/XIX.mendekoa. 1825. urtean predikatua berriz. Urrengo biekín 7. *saila*.

39. "Ductus e Jesus in desertum á Spiritu, ut *intartr* á diabolo... Math. 4."

40. "Erat Jesus ejiiciens demonium, et illud erat mutum. Lucae cap. 11."

41. "Platica para la Dominica primera de Quaresma". XVIII/XIXgoa. Berak bakarrik 8. *saila* osatzen; bainan 7. sailarekin ikustekorik baduela ematen du.

42. (Elizakoak hartzeko prestatzen). Bat bakarra: 9. *saila*. XVIII/XIX.

43. "Sermon del Juicio". XVIII/XIX; urrengo hiruekin 10. *saila*.

44. "Sermon del Seg.<sup>do</sup> Dom.<sup>o</sup> de Adbiento".

45. "Sermon del Tercer Dom.<sup>o</sup> de Adbiento".

46. "Sermon del Quarto Dom.<sup>o</sup> de Adbiento".

47. "Dom. Pentecostes =". XVIII/XIX; berriz predikatua 1821, 1826 eta 1832. urtetan. Berak bakarrik 11. *saila* giten.

48. "D.<sup>a</sup> 2.<sup>a</sup> Q.<sup>ae</sup> (= Dominica secunda Quadragesimae)". 1758. urtekoa. 12. *saila* osatzen berak bakarrik.

49. "Pasquas de Navidad". Urrengo seiekin 13. *saila* osatzen, denak ca. 1831. urtekoak izan daitezkeelarik.

50. "Stabat x.<sup>a</sup> (= iuxta) crucem Iesu Mater eius. Ioanes cap. 19".

51. "Platica Miercoles de Ceniza". 1831. urtekoa.

52. "En la anunciacion de N.<sup>a</sup> S.<sup>ra</sup>".

53. "Platicas sobre los 10 mandam.<sup>s</sup> 1.<sup>o</sup>".

54. "Segundo mandamiento".

55. "Tercer mandamiento".

### E. Elkano-ko "Vicario" Joakin Lizarraga-ren liburuak

Lehen esan dugun bezala, Damaso Aitak aurkitu zituen liburu hauek Elkano-n. Gero, Polikarpo Aitak gorde izan ditu eta horietako batetik hitz pilo aundia atera zuen eta *Fontes* aldizkarian argitaratu. Hor bertan eman

genuen guk bi liburu horien berri: luzera eta zabalera, zenbat orrialde eta zer gai, noizkoak diren etab. —Fontes, 1972, 265-281—. Horietako haundienak 385 orrialde ditu; 300 eta 205 mm. luze-zabal. Besteak 314 ditu; 150 eta 110 mm. luze-zabal.

## Eraskina

Aipatu ditugun agirien osagarri bezala, Errezu-ko Jorje Aitak, Euskaltzain Ohorezko denak, aurkitu dituen agirien berri emango dugu lenenbizi; eta urrengo, Lekaroz-ko Liburutegian dauden izkribuena. Oso laburkiro mintzatuko naiz atal honetan.

### A. Jorje Aitak aurkitutako agiriak

1. Bost elkarriketa eta seigarren baten asiera, gogo-jardunei buruz. Bizkaieraz daude eta XIX. mendekoak dira.

2. Baztaneraz: hamabi sermoi eta sermoi zati. Hemeretzigarren mendekoak: Amaiur, Arraioz eta Gartzain-goak.

3. Bidasoa aldeko euskaraz, baztaneraz ote? Bederatzi sermoi dira, XX. mendekoak, Elizondo-n eta predikatuak. Beren egileak Lekaroz-ko kaputxinoak izan daitezke.

4. “Amoresco eta doloresco Jesu Christoren pausoac” izeneko liburuxka. Nafarroa-ko euskaraz dago, egoaldeko euskalkia besteren batekin nahastua erakusten duela. Hemeretzigarren mendekoa daiteke izan. Euskara ederra du, batez ere sintasiaren aldetik. 56 orrialde: 103 eta 75 mm., orrialde bakoitzean gehienez 10 lerro daudelarik.

### B. Lekaroz-ko Liburutegian dauden agiriak

1. “Sermones de Mission en Basquenze / al simple uso del Padre Carlos de Fuenterravia / Religioso Capuchino. En el Conv.<sup>to</sup> de Pamp.<sup>a</sup> Año 1775.” Bere berri eman zuen Polikarpo Aitak —Fontes, 1976, 65-75—. Liburu lodi bat egiten dutela daude josirik predikuak, 566 orrialdeko liburua mardula. Paperaren luzera-zabalera 210 eta 150 mmkoa da gutxi gora bera.


Lehenbiziko 66 orrialdeak misio sermoiek osatzen dituzte eta Nafarroa-ko euskaraz idazten saiatzen da autorea; beste guztiak, orrialde bakarren bat kenduz gero, Oiartzun aldeko euskaraz daude. Egilea hondarribitarra zen eta gainera sermoi horiek, Garizumetan predikatzeke prediku horiek, Oiartzun-erako prestatu zituen. Hitzaldiak urte hauen tartean izan ziren idatziak: 1775-1791; eta Oiartzun-go garizumak urte hauetan predikatuak: 1786-1794 —bederatzi urte segidan; baina tomu honetan sei urtetakoak daude baka-rik—. Hondarribitarra denez gero, bere herriko euskara ageri da, adibidez,

pluraleko genitibo eta datiboan: *animakentzat* ‘animentzat’, *begiyaki* ‘begiai’, etab. —Ik. Polikarpo Aita, *Fontes*, ut supra, 66. or.—.

2. “Novena de S. Francisco de / Asis. / S. Francisco Asis-coaren / Bederatziurrena / A M D G”.

Liburuxka antzera josirik, 44 orrialde ditu, 5 marrazkiz ederturik, 210 eta 150 mmkoak.

Erderatik itzulia dago, erderazko bederatzurrena Antonio Bozal, zisterko batek, egina delarik. Itzultzailea *J. I. A.* da, honela bait dio: “*J. I. A.-c / Erderatic Eusquerará itzulia.*”. Noiz egin zuen lan hori ere esaten digu: 1865. urtean. Gipuzkoeraz dago itzulpena.



Francisco Ondarra Euskaltzaindian Sartze mintzaldian (Altsasu, 1981-III-22)

3. “Errazuko Dotriña / Cristau Doctriñaren declaracionea”. Aldaketa honen egilea Lezoko Jose Aita, kaputxinoa, da, eta Lekaroz-en egin zuen, 1935.urteko maiatzean —Ik. azkeneko orrialdea—. Ez dugu dudarik egiten Dotrina hau “Fondo Bonaparte” delakoan dagonaren aldaketa dela, Nafarroa-ko Forudun Aldundiaren Artxiboan ongi gordea; baina aipatu dugun urte horretan ihesaldi bat Lekaroz-era egin zuena. —Ik. RIEV, 1913, 188. orrialdea, 45. zenbakia—.

4. "Elizondo". Hau ere dotrina bat, "Lekarotzen 1935.<sup>ko</sup> Lorillan Arantatz'tar (Lezoko) José"-k aldatua, bestea bezala. Hau ere "Fondo" hortakoa, hor aurkitzen bait dugu "Catecismo, en dialecto vulgar de Elizondo" —Ik. RIEV, 1913, 187 or., 23. z.—.

5. Azkenik, badaude zenbait sermoiren serokopiak, Lekaroz-en daude-larik egileek egin zituztenak. XVIII/XIX. mendekoak eta baita ere XX. mendekoak izan daitezkeenak.

Bukatzeko, eta esan dugun guztiaren laburpen bat egiten dugula, ikus dezagun zenbat agiriren berri eman dugun: Bizkaieraz 83; gipuzkoeraz 21; lapurdieraz 18; Nafarroa-ko euskaraz —Goñibar, Lizarraga, Baztan, Bidasoa aldeko eta beste— 113, eta ez dezagun ahaztu Nafarroa-ko agirietan hiru liburu sartzen ditugula.

Ikusi duzuenetz, aurkezpen utsa egin dugu. Lan haundia dago oraindik nork eginak izan ziren, nolako euskara duten etab. ixtudiatzeko eta jakiten saiatzeko.





## F. ONDARRA EUSKALTZAIN BERRIARI ERANTZUNA

*Altsasu, 1981-III-22*

*J. M. Satrustegi*

Aralar eta Urbasa mendialde bien arteko Sakanan eman dio aurtten Euskaltzaindiak udaberriari hasiera. Atzo, martxoak 21, Urdiainen zituen egun osoko bilerak, bart tren guzien fistu, joan-etorri eta burrunbaren artean egin du lo Zuzendaritzak Altsasun, eta gaur, azkenekotz, euskaltzaletasunaz hainbeste dakien kaputxinoen etxe maitagarri honetan egiten du bere batzarre irekia.

Bego olerkarienzat udaberriaren sarrerako gaupasa. Ez digu ojala gehiegirik ere noiz eta nola izan den adierazten dabiltzenen ordua eta unetxoa jakiteak. Gauzez eta egunez ginen hemen gu, hemen zen Euskaltzaindia eta, orain arte Burundan inoiz bildu ez bada ere, euskararen udaberri itxaropentsua ekarri nahi dio lurralde honi eta bertako euskaldunei. Burundako lehen euskaltzin osoa da aita Ondarra.

Altsasu aukeratzean Burunda osoa du Euskaltzaindiak gogoan. Alde batetik, F. Ondarra euskaltzain berria, Bakaikuko semea, burundarra delakoz, nolabait euskalki jator honekin zuen zorra ordaindu nahidu orain.

Bada, hala ere, beste arrazoirik eskualde honen nortasuna adieraz leza-keenik. Hemeretzigarren mendeko euskaltzale jatorrek azpimarratu zuten eran, Burunda da geografia aldetik Euskal Herriaren bihotza. Bilbo eta Gasteiz, Iruñea eta Donostia arteko bide erdian dagoela ikusi besterik ez dago. Hain zuzen ere, horrexegatik zioen norbaitek Euskal Herri batuaren hiriburua hemen behar lukeela egon.

Hizkuntza aldetik ere oso berezia da Burunda. Berez Nafarroa izanik eta Nafarroa-garaian ekialdeko hizkuntzaren muga hain gertu Arakilen egonik, hemengo euskarak badu gipuzkeraren kutsua; eta harrigarriago dena, bizkaierarena.

Urdiainen, orain bertan, aditzaren *dot* forma ibili ohi dute Nafartar *dut* esan beharrean. Beren euskara zakarra delako ustean hizkuntza txukundu nahi dutenek berriz, giputzen *det* sartzeko fantasia izan dute, eta joera horrek beti ditu jarraitzaleak. Hala ere, bertako euskaldun zaharrek *eman jeat* erabiliko dute, *eman ziot* hiketako formaren orde.

Hori bera gertatzen da hiztegiarekin. *Izeba* hitzaren ordeaz, *izeko* eta *izko* esaten da Burundan. Sakanako beste herrietan *orantza*, eta Burundan *mentzaia*. Azkuek ez dakar hitz hau. 1969.eko argitalpenari Liño Akesolok egindako eraskinak *mensai* dio. Zalantzarik gabe *mentzai* esaten da hemen.

Herrialde oso ezberdinen jo-muga da Burunda. Aho zabalik gelditu nintzen ni bi golde mota elkarren ondoan ikusi nituelarik Urdiainen: Erromatarrena nekazari baten etxean, eta Auñamendiko golde naharra, aldamenean. *Golde frantzesa* esaten zioten berek. Altsasun ere biak aurkitu ditut. Ez da gehiago golderik. Urte gutxiz galdu dira.

Bidekurutzeko herri jakintza hau oso berezia da eta ez dugu behar hainbat aztertu. Iparraldeko mezua nagusitu zaio batzutan hegoaldeko kutsuarekin: ipuietan, adibidez. Hegoaldeko ohiturek beste askotan baztertu egin dituzte euskaldunon joera zenbait. Esate baterako, Burundan etxaldea senide guzien artean banatzen da. Sakanako beste herrietan zaharrena egiten da etxera, eta besteei laguntza bat ematen zaie ezkontzean. Muga garbia.

Nortasun haundia eman dio jakintza ezberdinen lekukotasun honek Burundari lehengo denboretan. Behin eta berriz erraustuak izan dira herri hauek eta berri berritik jasoak gerrate bakoitzaren atzetik, eta horrek ere uzten du bere ezaugarria.

Gaur euskararen muga dugu Burunda. Herri bakoitzaren etorkizuna ez baino Euskal Herriaren eta euskararen geroa dago hemen zalantzan. Hegoaldeko mugarik aurreratuen du gure hizkuntzak Sakana. Hau galduz, Larraundik gora estutuko zaigu iparraldera hizkuntzaren muga.

Denbora berrien arauera, berriz, berpizteari garrantzirik eman nahi badiogu, Altsasuk Zegama eta Idiazabal herri euskaldunak ditu Gipuzkoa aldera aldamenak eta Urdiain euskara biziarekin sortaldera. Berpizteko egoera berezian aurkitzen da, beraz, bertako zaharrenak euskara mintzo dutelarik. Lekukoa edo testigutza indartzeko lanbidea da berea.

Eta beste maila batean, Iruñea eta Gasteizko hiriburuen erdibidean, Urdiaindik 47 km. daude Iruñera eta beste 47 Gasteizara, hirinagusietako ikastolen lokarri izan behar luke Sakana, herriz herri, ezker eskubi euskararen arrosario luzea hiritaraino egiten joateko.

Oraikoz ez da horrela. Altsasun ikastola eder bat egin da, baina denbora berean lau bost urtez Urdiaingo kaleetan euskara galdu zaigu. Berri txarra. Kalea da egiazko ikastola.

## BURUNDA ETA IKERLANAK

Lehen esan dugunez, Sakana ez dago hizkuntza aldetik behar bezala azterturik. Azkue, Barandiaran eta aita Donostiak egindako bildumek jaso-

tzen dute zenbait gauza eta eskegarria da. Bainan, hizkuntzari buruz lan gutxi egin da.

L. L. Bonaparte printzeak Gipuzkoako euskalkitzat jotzen zuen Burundako mintzaira. (1) Arturo Kanpion jaunak bide beretik jarraituz, gipuzkeratzat hartu zuen honako herri hauetako euskara: Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi, Bakaikoa, Lizarragabengoa, Etxarri-Aranatz, Unanua, Lizarraga eta Dorrau. (2)

Ez da erraza, alde batetik, herri guzi hauetako hizkuntzak beste argibiderik gabe maila berean daudela esatea. Eta hainbat gutxiago gipuzkera dela aitortzea. Mugako hizkuntza delarik, ez da zaila gipuzkeraren kutsuko gauzak aurkitzea; baina era berean aurki daitezke aldameneko euskalkietako sustraiak. Horietako bakoitzean zoin euskalkiren kutsua nagusitzen den ikustea izango litzateke helburu on bat.

Esate baterako, bide horretatik jo zuen aita Intzak aldamen herrietako aditza ikuspegitzat hartzean. Otzaurte eta Urtsaran Gipuzkoa aldetik eta Olazti, bestetik. Zer esanik ez, alde handia nabarmentzen dela bien artean.

Eta zer esan Lizarraga eta Urdiaingo euskararen artean dauden bereiztasunetaz?

Ikus ditzagun Burundako euskarari buruz egin diren lanak zoin diren.

1) **Damaso Intza.** Burundako Euskalkia. (3) Gehienik Olaztiko aditza jaso zuen lan honetan, bainan Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku aipatuz. "Baparroko aditz laguntzaleak" izenburuarekin baditu beste bi lan. (4) Euskal esaera zaharretan ere baditu Burundakoak. (5)

2) **Candido Izaguirre.** "Altsasuko euskeraren gai batzuk" (6) hiztegia, esaerak eta doinua jasotzen ditu. Batez ere azentua erremarkatuz. Aberatsak dira egiten dituen oharak.

3) **J. M. Satrustegi.** Neuk ere etnografiaz egindako lanez beste alde, jaso izan ditut hiztegiari buruz Urdiaingo zenbat ohar, hala nola zizen izenak,

---

(1) BONAPARTE, LOUIS-LUCIEN. Le verbe Basque en Tableaux, Dialectes et sous dialectes.

(2) CAMPION, ARTURO. Gramática Bascongada, pág. 38.

(3) INTZA, DAMASO. Burundako Euskalkia. EUSKERA, 1922, III-3, 3-42 orr.

(4) EUSKERA. 1921, II(II) 3-35 orr. EUSKERA. 1922, III(II) 65-92 orr.

(5) *Naparroako Euskal-Esaera zarrak.* (Iruñea, 1974).

(6) IZAGUIRRE, KANDIDO A. Anuario SFV. 'Julio de Urquijo' 1967. T.I pp. 3-55.

ahaidegokoak eta hitz arruntak. Baita zenbait erromantze zahar eta Urdiaingo kantuak (7).

4) **Pedro de Yrizar.** Bere aditzaren lanean jaso du Burundakoa. Altzasu Olazti eta Bakaikuko berriak aita Frantzisko Ondarrak bialduak izan behar ditu, eta Urdiaingoa magnetofonoz hartu eta idatzirik neuk bidali diot. Madrilan bertan hartu dizkio, beste alde, Migel Agirre Urdiaingo sendagileari.

5) **Frantzisko Ondarra.** Gaur bere sarrera hitzaldia egin digun euskaltzain berriak, beste alde, Bakaikuko hiztegitxo bat argitaratu zuen orain dela hamabost hamasei urte (8).

Ez dakit besterik baden. Nola nahi ere, bada nun lana egin. Agian Dialektogia batzordearen asmoak mamitzen direlarik ikuspegi argiagoa eskainiko digu Burundak. Arabako euskara galdua delarik, arreta gehiagoz hartu behar zen, orain baino lehen, mugako euskalki hau. Nere ustez, bizkaieraren kutsua baino gehiago, arabarraren nolabaiteko jarraipena izan zaitekeen herri hauetako hizkuntzaren bereiztasuna.

## EUSKALTZAIN BERRIA

Eta Burundaz mintzo bagara, hain zuzen ere bertako seme batek bide emanik abiatu gara. Bakaikuarra dugu Frantzisko Ondarra kaputxinoa. Barga ondoan etorri zen mundura 1925.eko maiatzaren 19an.

Gogorra zen garai hartan herri hauetak jendeen bizitza. Lurrak ez dira aberatsenatarik eta gizon gehienek Olaztiko porlan fabrikari lana egin ohi zuten. Goizeko lau terdietan edo bostetan jaiki eta oinez joaten ziren zazpi zortzi kilometrotan lantegira. Hauen artean, euskaltzain berriaren aita.

Gaur hemen babesten gaituen Altsasuko konbentura etorri zen gazterik, inguru hauetako beste hainbat ikasle bezala.

1949.eko abenduaren 17an apeztu zen.

---

(7) Ikus. *Vocabulario Popular*, Euskera 1963-64, VIII-IX, pp. 255-283. *Urdiaingo zizen izenak*. Euskera, 1975, XX, pp. 325-329. *Ahaidego izenak*. Euskera, 1977, XXII, pp. 647-652. *Versión popular vasca de un cuento de Grimm* BRSVAP, 1965, XXI, pp. 282-291. *Urdiaingo San Pedroren kantaita*. EGAN 1969, 1-3, pág. 29. *Romance del amante relegado*, FLV. 1969, 3, pp. 353-361. *Canto ritual del agua en Nochebuena*, Ur goiena, FLV. 1971, 7, pp. 35-73. *Pregón festivo de San Juan*. FLV. 1971, 8, p. 171. *Romance vasco de la doncella guerrera*, FLV. 1972, 10, pág. 73. *Rito y mito del agua en el folklore vasco*, Indubán 1973, p. 109. *La Leyenda del dragón en las tradiciones de Urdiain*, CEEN. 1975, 19, p. 13 *Herensugea*. EGAN. 1975, 1-6, pp. 45-54. *Ipui Miresgarriak*, 1980. *Mitos y Creencias*. San Sebastián, 1980.

(8) *Voces vascas de Bakaicoa*. BRSVAP. 1965, c3-4.

Aita Ondarraren bizi-txartela, geroztik, munduz mundu ibilitako elizgizon baten eginkizunena da. Gaur Pinochet jaunaren eremua den Chilen egon zen hamairu urtez (1951-1964). Sortzez badu norberak izar bat, eta euskaltzaletasunaren bidetik landa abiatu zen Ondarrarena. Atzerrian eman zituen lehen fruituak.

Euskal Herrira itzultzean ez zen hemen ere, hasieran behintzat, patxadaz leku batean egon. Lau urtez hiru izendapen izan zituen, Tuteran, Zankozan eta Donostia (1964-68). Euskal gazetan ez genuen ezagutzen.

Geroztik Lekarotzen dago hamahiru urte hauetan.

Irakaskintza izan da bere biziko eginkizun nagusia. Ingles irakasten du Lekarozko ikastetxean, Michigan unibertsitateko tituluaz baliaturik, eta Lekarotzen hasi zen Baztan aldeko tregoharri mendialdeko hilobi zaharrak aztertzen. Geroztik, Baztango eta Nafarroako megalitiko azternen zerrenda osoa egina du bi lanetan (9).

Hizkuntza aldetik Filologia Hispanikan lizentziatua dugu, erromanika sailan. Lizarraga Elkanokoari buruz hiru bat lan egin ditu (10), eta euskal idazki zahar zenbait argitaratu (11), esku izkribuak batez ere.

Aita Ondarraren izendapenez Euskaltzindiaren iker-saila indarberritzen dugu, Dialektologia, gramatika eta Euskararen lekukoei buruz, batez ere, hain eginkizun larriak datorzkigun une honetan. Bere ingles klaseekin buru belarri harrapaturik zegoelarik euskal gaientzat astia izan badu, karguari dagokion lasaitasun gehiago emanez egin dezaken lan garrantzitsuaz zalan-tzarik ez dugu.

Nafarroako egoera negargarriak, beste alde, lekukotasun bat eskatzen du euskararen arloan. Hil edo biziko burruka lotsagarria da alderdi politikoek berezko euskaldun nortasunari Nafarroan sortu dioten auzia. Hitzez ez baina ekintzen bidez erantzun behar diogu zapalketari; napartarron sentipenak eta euskararen aldeko lana lehen mailara bultzatuz.

Alderdi horretatik oso baikor ikusten dut 'Principe de Viana' elkartean Arkeologia saileko batzarkide dugun F. Ondarra Euskaltzindira ekartzea. Geroak epai beza bakoitzaren erantzunkizuna.

---

(9) Nuevos monumentos megalíticos en Baztán y zonas conlindantes. P. de V. 1975, pp. 5-46; 1976, pp. 21-54. Nuevos monumentos megalíticos en Navarra. P. de V. 1976, pp. 329-363.

(10) Producción literaria. Joaquín de Lizarraga. FLV. 1972. Joaquín Lizarraga en el diccionario de Azkue, FLV. 1980. La escuela de gramática de Joaquín Lizarraga. FLV. 1978.

(11) La parábola del hombre y el dragón. CEEN. 1977. Manuscrito de pláticas en euskera guipuzcoano. 1978, 30; 1979, 31. Catecismo de Uterga, FLV., entre otros.

## EUSKAL ESKU-IZKRIBUAK

Frantzisko Ondarra euskaltzainak egin digun sarrera hitzaldiak badu bere garrantzia. Polikarpo aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpenarekin, aipamen eta esaldi haundiko predikuekin ez bezalako omenaldia eskaini dio bere aulkiko euskaltzain zenduari.

Zerrenda honekin, beste alde, aspaldi egin beharra genuen ekintza baten harian sartu zaigu euskaltzain berria. Edozein herritan galtzeko arriskuan ditugun euskarazko esku-izkribuez landa, baditugu han hemenka jasoak diren bildumak eta horien denen zerrenda zehatzak egiten hasi behar genuen lehen-bait-lehen. Hori da hain zuzen ere, Ondarra jaunaren emaitza.

Polikarpo aitaren bildumak ezezik, Lekarozko liburutegian dauden esku-idatzien aurkezpena ere egin du, hala nola Erriezuko aita Jorjek bereganatutakoena. Horrekin, Lekarozko euskal esku-izkribuen gordailua oso osorik aurkeztu digu. Abiada ona, bidea irekia delarik beste toki batzutan direnen berri ematen saiatzeko.

Euskaltzain berriari erantzuna ematean ez nuke hitz huts eta ongi egina- ren espantu antzutan gelditu nahi. Bere lanaren jarraipen apala besterik ez bada ere, neuk ditudan euskarazko esku izkribuen aipamen laburra egingo dut.

### I Orreagako bilduma.

Bederatzi urte egin nituen Luzaiden (1955-1964) eta harreman onak nituen Orreagako lagunekin. Maiz iragaiten nuen Ibañetako lepoa. Arratsalde batez sua egina zuten plaza nagusiaren sarrera aurrean puskak erretzeko. Nikolas Polit bertako buru izandakoaren puska zaharrak zirela esan zidaten berehala.

Aurizko seme ospetsu honen berri banuen nik aspaldi, Luzaideko erretorizana bait zen lehenik, eta gutun edo esku-izkribu zaharrak ez ote zuen galde- tu nien.

Baietz, eta niretzat begiratu zituztela euskarazkoak, erantzun zidaten. Horrela jabetu nintzen batz bestea 334 orrialde dituen 71 esku izkribuko bildumaz. Neurria 223 × 135 mm. gehienek. Paper haundiren bat edo beste ere bada.

Haien artean baziren beste 15 erdaldun eta 303 orrialde gutxi gora behera.

Orreagako euskal idazkiak ez dira denak egile batenak. Lau sortetan sailkatuko ditugu:

A) **Nikolas Polit** (1834-1906). 52 idatzi euskaldun Nikolas Polit jaunarenak dira. Hauetatik 50, igande eta festa egunetako predikuak dira, eta Jose Oliver Iruñeko gotzaiaren gutun biren itzulpenak bestea biak. Urtean urteko aurkibidetxoak baditu eta horrela, 1869-1873 bitartean emandakoak direla badakigu. Gotzai gutunaren itzulpenak berriz, 1881 eta 1885.ekoak.

Luzaideko mintzaira garbian eginak dira. Idazkera txukuna eta letra oso ederra dute.

Erdarazko bilduma jakingarria da. Ondarrolari buruz 1928an Frantzisko Echeberri, Luzaideko erretoreak, izan zituen traba eta oztopoen kondaira ekartzen dute. Frantziako agintariek, hain zuzen, ez zioten muga iragaiten uzten. Baionako gotzaiaren eta beste agintarien gutunak datoz. Bai eta ere Luzaide eta Orreagako biztanle guzien zerrenda.

Orreagan lan haundiak egin zituen eta bertan izan diren nagusi ospetsuen artean aipatu ohi da bere izena.

B) **Lesaka eta Zugarramurdi**. Orreagako bilduman badira beste hamar prediku zaharragoak, 1848tik 1860 bitartekoak. Lesaka eta Zugarramurdi emanak direla adierazten dute. Euskara herrikoian daude 78 orrialde hauek: *errattacion, errancition, tocatu baitattequiyo, "Oh izena! izen gueiyen gañe-cua, eta guizonic famatuben titulubaq chicatzen tubena! Viño ah!"*.

Lekuko mintzaira aztertzeke oso baliagarriak izan daitezke. Egilearen izenik ez dakigu. Hauetaz baliatzen da Nikolas Polit bere prediku batzutan zenbait hitz aldatuz.

C) Beste bi prediku Zaraitzu eta Erronkari aldeko mintzairaren kutsukoak dira. Bat oso osorik dago eta bigarrenak bi orrialde bakarrik ditu. Hona zenbait adibide: *cayen = haien, cain = hain, can = han. Desterrazra. Conso-lazra. Erdeten zrelaric. Confiatric ayec ezroqueyena obratren zuela Jaungoicoac. Egun elguicinuen munduala aurora. Ezpaitroque bila.*

D) **Joaquin Lizarraga**. Elkanokoaren platika bat ere bilduma honetan zegoen. Zazpi orrialdi ditu eta bere egunean argitartu genuen (12).

Hau da nik dudan lehenbiziko bildumaren kopurua.

## II Muruzabalgo bilduma

Nafarroan Ilzarbe bailarako herritxoa da Muruzabal. 1802.an 54 etxe zituen eta 274 biztanle. Obanos eta Uterga ditu aldamenak. Eunate izeneko eliza erromanikoa bere lurraldean dago.

---

(12) SATRUSTEGUI J. M. *Nuevo documento no catalogado de Joaquín Lizarraga sobre los bailes*. FLV. 1976, 23, pp. 205-236.

Pedro Izu bertako erretore zela jasotako bilduma honek 53 prediku ditu, 312 bat orrialderekin. 1979.enean eskuratu nituen eta Iruñean Elizbarrutiko gordailuan toki bereziren bat egiteko zai nago bertara eramateko.

Ez dira denak idazle batenak. Zaharrenak XVIII. mendearen erdialdekoak dira: 1743 dio zaharrenak. Zorro zahar baten gainean Fr. Felix Langarica, Iruñeko komentuko kaputxinoaren izena ipintzen du.

Gehienek ez dute ez herri izenik ez urterik ematen. Batean Larrasoaña aipatzen da, bertako jendeei zuzendutako predikuan.

Banaka aztertu beharko lirateke xehetasun zehatzak jasotzeko. Oro har Nafarroa garaiko euskalkian emanak iduri dute. *Erran* erabiltzen du ia denetan. Hala ere, hobeki ikusi arte ezin dut segurtatu.

Erdarazko 18 bat prediku eta Iruñeko gotzaiaren gutun bat ere badira.

### III Lafitte jaunaren bilduma

Hemeretzigarren mendeko 30 euskarazko esku-izkribuk eta beste 22 erdarazkok osotzen dute Lafitte jaunak 1977.ean eman zidan bilduma. Erdarazkoetan Migel de Lizargarate batek Ameriketatik egindako gutun mordoak agertzen da.

Euskaldunetan 10 dira urtea adierazten dutenak, eta erdaldunetan 5, XIX. mendearen erdialdekoak denak: 1854-tik 1867-ra.

Sermoi batean Fuenterrabia agertzen da. Lafitte jaunaren ustez Nafarroa garaiko mintzaira dute. *Le Parisien* egunkariaren orriekin inguraturik zeuden; 1960.eko apirilaren 21eko zenbakia. Gainean honela zioen: *30 manuscrits en basque dialecte de Haut-Navarre, milieu de XIXe siècle*. Beste bildumaren gainean berriz: *“..en basque dialecte de Navarre”*.

### IV Arruazuko bilduma

162 sermoi eta 977 orrialde badira Arruazuko bilduman, 1833. urtetik 1881ra bitartekoak. Gehientsuak zein urtetakoak diren adierazten dute. Nere sorterriko apez etxean gorde dira eta orain neuk dauzkat, ez bait da han nehor bizi. Iruñeko eliz-barrutiko gordailura eraman nahi nituzke, horretarako arasaren bat ipiñi nahi badute.

Goldaraz eta Eguilleta herriak aipatzen dira zaharrenetan. Goldaraz Nafarroako Imoz ibarreko herria da. Eguilleta izeneko herririk ez dut ezagutzen Nafarroan. Arabako Eguileta?

Egilearen berririk ez dugu. Hogeigarren sermoian, garizumako lehen igandeko predikuaren atzetik, honako agiri hau dago: “D. Mariano Percz



Pbro. Vicario de la Iglesia parroquial de S. Salvador de la villa de Lacunza, Provincia de Navarra, obispado de Pamplona: **C e r t i f i c o** que Cristobal Fuentes, natural de esta villa, asegurado en la Sociedad La Tutelar, inscrito en el registro matriz con el número cuarenta y nueve mil seiscientos doce existe en el día de la fecha disfrutando de buena salud. Y para que conste donde combenga doy la presente en Lacunza á doce de enero de mil ochocientos sesenta y cuatro. Mariano Percáz.”

Ez dakigu sermoinen egilearekin zer ikusirik baduen Mariano Percáz honek. Nola nahi ere, sermoinaren urte bera da agiriarena ere Arruazu eta Lacunza aldamenak direlarik. 1862.eko sermoi baten izenburuak honela dio: “*Sermon de la despedida de la parroquia*”. Herri hauetako elizliburuak begiratzuz argibideren bat eman lezake, behar bada.

## V Intzeko bilduma

On Kasimiro Saralegik emanda badut Araitz ibarreko bilduma txiki bat ere. Liburu antzean josirik “Practiquec” izeneko lagungarriak: “Enfermoac visitaceco, eta ongi illcen lagunceco Laugarren librué.” 132 orrialde.

Ama Birjinaren jaiot-eguneko hiru sermoi, 1801, 1808 eta 1825. urtekoak. Beste hiru idatzi labur.

Denak, zazpi lan dira eta 150 orrialde, 1801tik 1825era.

Bukaeran, anime, andie, uztarrie egin ohi du. Larru *guztie* eta odol *guzie* era bietan. Aditzean ere berdin: Aguincent *digune*, *dezagule*. Zerureco. Aingueru *bet*. Gracin eta bekatun. 1925.ekoan *tz* idazten du: guardatzen.

Egilearen izena, *Elordi* dio 1801.eko predikuan.

## Laburpena

Nik etxean ditudan bost bilduma hauetan, 323 esku-izkribu badira eta 1855 orrialde euskaraz idatziak.

Ehun eta berrogeita hamar urteko epean sartzen dira, 1743-tik 1881-era.

Agertzen diren herriak hauek dira: Luzaide, Lesaka eta Zugarramurdi, Orreagako bilduman. Larrasoaña, Muruzabalgan. Hondarribia, Lafitterenean, Goldaraz, Eguilleta eta Lakuntza, Arruazukoan. Azkenik Intza, bosgarren bilduman.

Egileen artean konda daitezke, Nicolás Polit, Felix Langarica, Elordi, Frantzisko Echeverri eta, behar bada, Mariano Percáz Lakuntzako apezka. Eta batez ere Joakin Lizarraga, Elkanokoa.

Mintzaira aldetik balio gutxikoak gerta ohi badira ere gehienetan, Lesakakoak lekukotasun berezia dute bertako bustidurak eta guzti grafian emaiten baitu. Zaraitzukoak oso jakingarriak iduritzen zaizkit, eta J. Lizarraga Elkanokoarena, dantzei buruz, aberatsa hizkuntza aldetik nahiz etnografia ikerketarako.

Beste apal hariek ere komeni da begiratzea. Nork esan dezake gutxienik uste dugularik ez ote diguten berri bitxien bat agertuko? Berdin, hizkuntza mailan hitz ezezagunen bat edo beste. Herri bakoitzeko joskera eta esamesek balio haundia har dezakete euskalkien nortasuna galtzen doan eran. Eta besterik ez bada, egoera baten lekukotasuna berekin dute. Hori ere zerbait bada. Sura joanak du bere balioa galdu; hura ezin da baliatu. Bestea bai.

Eta hobeki baliatzeko, zure gaiari jarraituz, Ondarra euskaltzaina, eman dizut erantzun mugatu hau, hitzez baino zehatzago lantxo bat mamituz, ekintza honi jarraipena eman behar zaiola esateko.

Zorionak. Emaitza ugaria itxaro du zugandik Euskaltzaindiak.